

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure proiektua, Eskutik proiektua, aniztasun funtzionala duten haurrei laguntza eskaintzeko, balio-proposamena modu eraginkorrean helarazteko diseinatuta dago, eta hainbat kanal erabiliko ditugu horretarako. Gure komunikazioaren oinarri nagusia gure webgunea (<https://sites.google.com/durangobhi.net/wwweskutikcom/orri-nagusia>) (bertan klikatuz gure webgunean sartu zaitezke) izango da. Webgune honetan, gure zerbitzuen inguruko informazioa, metodologia eta arrakasta-kasuak argitaratuko ditugu, erabiltzaileei laguntza nola eskain diezaiekegun argi azaltzeko.



Sare sozialak ere tresna garrantzitsuak izango dira guretzat. Facebook, Instagram eta TikTok-en bidez gure balio-proposamena modu erakargarrian zabalduko dugu, eduki bisualak, bideoak eta testigantzak partekatuz. Plataforma hauek erabiltzaileekin elkarreragiteko eta komunitatea sortzeko aukera ezin hobe eskaintzen digute, gainera, gure ekintzak eta tailerrak promozionatzeko baliagarriak izango dira. Sare sozialetako estrategia honek familiei eta gizarte-eragileei gure lana hurbildu eta ulertarazteko balioko du.

Bestalde, posta elektronikoa ere komunikazio-kanal zuzen eta pertsonalizaturako erabiliko dugu. Aldizkako buletinak bidaliko ditugu gure zerbitzuen berrietasunak, sektoreko albisteak eta antolatutako ekintzak partekatzeko. Modu honetan, gure erabiltzaileei informazioa zuzenean eta modu eraginkorrean helaraziko diegu.



Komunikazio hori osatzeko, hezkuntza-zentroekin eta elkarteekin elkarlanean aritzea funtsezkoa izango da. Eskoletan, familiei eta komunitateari zuzenduriko tailerrak eta hitzaldiak eskainiko ditugu, gure zerbitzuak eta balio-proposamena aurrez aurre azaltzeko aukera paregabekoa izanik. Horri esker, aniztasun funtzionala duten haurrei eta haien familiei laguntza hurbilago eta eraginkorragoa eskainiko diegu, beraien behar eta erronkei modu integralean erantzunez. Tailer eta hitzaldi horiek eskola eta institutuetan, hala nola, bizilagunen elkarteetan, kultur etxeetan eta udaleko gizarte zerbitzuen egoitzetan egingo ditugu. Gainera, osasun-zentroetan eta tokian tokiko beste instalazio publikoetan ere gure presentzia bermatuko dugu, hala nola, liburutegi, polikiroldegi eta gaztelekuetan, komunitate osoari errazago heltzeko.

Banaketa-estrategiari dagokionez, online plataforma bat garatuko dugu. Plataforma honetan, familiek erraz eskuratu ahal izango dituzte gure zerbitzuak, hala nola terapiak, aholkularitza-saioak edo tailerrak. Zerbitzu digitalak eskaintzeaz gain, gure presentzia fisikoa ere bermatuko dugu. Gure zerbitzuak eskoletan, osasun-zentroetan eta gure egoitzan aurrez aurre eskainiko ditugu, familiei arreta pertsonalizatua eta gertukoa emateko.

Horrez gain, **ekitaldi** edo **irteerak** eta **tailer praktikoak** antolatuko ditugu, non **familiek** eta **haurrek** parte hartu ahal izango duten. Jarduera hauen bidez, gure **balio-proposamena** **esperientzia praktiko** eta **aberasgarrien bidez emango dugu**, hau **kartelen** eta gure **webgunearen bidez** elaraziko dugu.



Azkenik, gure **webguneak** eta **online ordainketa sistemek** gure zerbitzuak **eskuratze**ko **erraztasun handia** eskainiko dute. **Bezeroek** zerbitzu **puntualak** edo **harpidetza**k **kontratatzeko aukera** izango dute **modu errazean** eta **seguru batean**. Gainera, **salmenta-ordezkarien bidez** tokiko **eskoletan** eta **hezkuntza-zentroetan** gure **proiektua** aurkeztuko dugu, eta **ahoz ahoko** **marketinaren bidez**, **familiek** gure lana gomendatuko dute **beste erabiltzaile potentzialen artean**.

Laburbilduz, gure **balio-proposamena** **komunikatzeko** eta **bezeroei eskaintzeko** **estrategia anitza** erabiliko dugu, **komunikazio zuzen** eta **hurbiletik** **hasi** eta **plataforma digitalen** eta **ekintza komunitarioen bidezko banaketara** arte. **Modu honetan**, gure **helburua** **aniztasun funtzionala** duten **haurren** eta **haien familien bizi-kalitatea hobetzea** izango da, **eragin ahalik** eta **handiena** sortuz.

GURE INSTAGRAM KONTUA:



BANATUKO DUGUN ESKUORRIA:



WEBGUNEA:

www.eskuti...

Orri nagusia

Sarrera

Nortzuk Gara?

Helburua eta Balioak

Gure Zerbitzuak



Gure Zerbitzuak

1. Haurren Garapeneko Programak

Gure programak haurren gaitasun fisiko, kognitibo eta sozialen garapena bultzatzen dute. Horretarako, proiektuak diseinatzeko ditugu adinaren eta beharren arabera, eta haurren autonomia, gaitasun sozialak eta autoestimua indartzen ditugu.

- **Gaitasun Sozialak:** Laguntza taldeetan, elkarrekin jokatzeko, komunikatzeko eta bestelako interakzio sozialak lantzen.
- **Hezkuntza Pertsonalizatua:** Haurren ikaskuntza erritmoa eta gaitasunetara egokitutako programa espezifikoak.

2. Psikopedagogia eta Laguntza Emozionala

Haurren emozioak eta behar psikopedagogikoak aztertuz, autonomia emozionala eta burmuinaren garapen osasuntsuaren alde lan egiten dugu. Terapia psikopedagogikoak eta psikologikoak eskaintzen ditugu, haurren autoestimua hobetzeko eta motibazioa handitzeko.

- **Terapia Psikopedagogikoa:** Ikaskuntzaren zailtasunak eta emozioei buruzko arazoak lantzea.
- **Terapia Psikologikoa:** Haurren emozioak eta arazoak kudeatzeko laguntza emozionala eta psikologikoa.